

**Urdiruz,**

**Juantxo**

*(Markalain, 1964)*

***Idazketari buruzko bi hitz***

Hondartzan nengoelarik, hara non ikusi nuen nire irakasle ohi bat, zangoak uretan lasai-lasai hozten ari zena. “Testu koherenteak sortzen” izeneko ikas-taro bat egin nuen harekin, 1994. urte aldera. Hobe nuen jarraitu izan banio koherentziaren bide hartan. Egia esan, nire eskola-garaian testu koherenteak eta koherentzia bera ez nituen askotxo estimatzen. Bai mundua bera bai testuak desordenatzeko joera bazen, nahiz eta orain agian ahaztuxea eduki. Eta nik koherentzia-eza gustukoa nuen.

Orain bestela pentsatzen dut. Errealitateari toki gehiago eman behar zaio. Niretzat, seguru aski, beranduegi da, baina susmo hori daukat.

Esate baterako, bada istorio bat, kontatu gabe desagertu beharko ez lukeena, eta baliabide eta ahalmen handiko idazle batek bere egin beharko. Istorioa ezaguna da; datuak hortxe dira. Iruñearen ondoko herriska bateko etxe bate-ra neska ile-apaintzaile hegoamerikar bat bere semearekin lanera joan zen, eskontza bat prestatzera. Segada gaixtoa zen. Bere semearen aurrean hil zuen sikario batek.

Gero jakin genuen neska hark Montaña aldeko putetxe bateko jabea denuntziatu zuela, prostituta izatera behartu baitzuten. Gero jakin genuen zonaldeko gizon batek lagundu ziola putzu sakon horretatik ateratzen eta bizimodu zoriontsu bat aurkitu zuela gizonaren herrian. Arrunt langilea omen zen, eta arrunt estimatua zonaldean. “Lasai, hemen badugu legea” esanez, bere senarrak lasaitzen zuen une latz haietan. Eta mundu koherente batean bizi zirelarik, alde iluneko esku ilun bateko bidea eman zion tragediari.

Emakume horren istorioak ez luke kontatu gabe desagertu beharko. Nafarroako euskal kontagintzak istorio hori bere garaian eta tokian jaso beharko luke, gerokoek jakin dezaten nor zen eta nola bizi ginen.

Jakina, beste batek beste istorio bat aipatuko luke. Eta horixe da eginkizuna, denbora batean halako toki batean gertatutakoa eta sentitutakoa gordetzea.

Gauzak zirriborratzea, idaztea, egile bezala, ez zitzaidan oso gauza koherentea iruditzen, ez bainekien oso gauza koherentea jasotzen ari ote nintzen, eta ez zitzaidan sekula errespetuzkoa lana iruditzen. Orain, berriz, bestela pentsatzen dut. Gauzak txukun gorde behar dira, ahalik eta hobekien, datorrena datorrela, gordetze-lan horretan dagoela idazketaren koherentzia.

291

